

# Historiarekin solasean

## Peru Iparragirre

**H**onela jasotzen du Elixabete Garmendia Lasak Mirentxu Purroy kazetariari Carlos Garaikoetxeari buruz esandakoa: «Historiari gustatu ala ez, herri hau Garaikoetxearen agintaldian diseinatu zen; orduan bai jakin zutela birplanteamendua egiten; harrezkerotik ez da berri herrialdea birpentsatu molde berri eta modernizatzaileetan».

Garmendiak Garaikoetxea lehendakariarekin eta haren ibilbide politikoan eta sozialean era batera edo bestera gurutzatu direnekin edukitako elkarrizketek osatzen dute *Carlos Garaikoetxea, lider bat lehendakari* liburua. Liburu biografikoa da, baina ez da biografia klasiko bat. Elkarrizketa liburua da beste ezer baino gehiago, munta handiko kazetaritza-lana, duen garrantzia historikoa dela-eta. Ez dakit oso argi zergatik, baina biografia bat

irakurtzera nindoalakoan ekin nion liburuari, eta beste zerbait topatu dut.

Garmendiak berak esan du elkarrizketaren batean dibulgazio-liburua dela hau, dibulgatzea duela helburu. Egitekoa betetzen duela esango nuke, eta Garaikoetxea nor izan zen –nor den– eta



### 'Carlos Garaikoetxea, lider bat lehendakari'

**Idazlea:** Elixabete Garmendia Lasak.  
**Argitaletxea:** Elkar.

gure herriaren historian izan duen eragina azaltzeko balio duela liburua, nahiz eta laborgeratzen den batzuetan. Hala eta guztiz ere, emaitza liburu ulerterraz eta irisgarri bat da, deigarria, lehendakariaren bizitza eta ibilbidea ilustratzen duten hainbat argazki ere hornitua. Garaikoetxeak politikan egindako ibilbideaz gain haren bizitza ere ari da liburu hau, eta hori du zatirik interesgarriena agian.

Garaikoetxearen ahotsa da nagusi, Garmendiak berarekin izandako solasaldiak direnez liburua-ren mamia: haren diskurtsoak eta testigantzek hartzen dute liburuaren lekunik handiena, kazetariaren galderek denboran aurrera eta auzi batetik bestera daramatelarik jarduna.

Bestelako ahots batzuk ere tarikatzen dira Garaikoetxearekin, Garmendiak liburua osatzeko elkarrizketatutako hainbat lagunak. Horietako batzuk dira, besteak beste, Mirentxu Purroy, Pedro Miguel Etxenike eta Jaime Ignacio del Burgo. Kazetariaren eta elkarrizketatu nagusiaren arteko solasaldiari beste dimentsio bat eransten diote elkarrizketok, dinamika orokorra nolabait hautsi arren, kontakizunari –Garaikoetxearen bizitzare-

nari, alegia– beste perspektiba batzuk ematen dizkietenak. Iru-dipen bera izan dut Garmendiak berak egindako azalpenei –atal bakoitza zabaltzen duten testuak eta noizean behin solasaldietan zehar testuingurua kokatzen dutenak– eta liburua zabaltzen eta ixten duten atalei dagokienez: behar duen beste ahots bat ematen diote testuari, kokatzen duena, zentzua ematen diona.

Asegabe utzi nau batzuetan liburua. Izan daiteke, Garmendiak berak azken atalean dioten bezala, hari asko uzten direlako tira egin gabe, auzi asko azalean, edo liburuaren izaera dibulgatzailea, laburtasun beharrezkoa, oztopo delako halako pertsona baten bizitza oso-osorik –eta, zuzenean edo zeharka gure herriaren historia hurbilaren puska handi bat– bere baitan emateko. Egja da horretarako beste liburu bat izan beharko litzatekeela hau, eta ez dela, esan bezala, historia osoa ematea lan honen asmoa.

Dena dela, historiaren zati hori, behintzat, eta dagokion perspektiba, bigarren eskuan jasotzen dugunontzat liburu interesgarria izan daiteke, ateak zabaltzen baitzikio hain gutxi eta hain gaizki ezagutzen dugun gure historiaren zati bati.

## SENEZ



### 'Senez' aldizkaria. 49. zenbakia

**Argitaratzailea:** EIZIE.  
**Zuzendaria:** Karlos del Olmo.

**S**enez aldizkariaren azkeneko alean 22 artikulua bildu dituzte, guztiak itzulpengintzarekin lotutakoak. Besteak beste, itzulpengintzari buruzko mahai inguru baten kronika eta Aiora Jakak Mario Benedettiren *Udaberri kantoi-hautsia* itzultzean bildutako gogoetak jaso dituzte.



### 'Polizoia' eta 'Hondartuta'

**Egilea:** Jim Ladd.  
**Argitaletxea:** Desclee.

**J**im Laddek sortutako Izarretarioz eldarnio-amets mundu batean dagoen Grigor batekin topo egiten dugu. Zoo batean kokatuta dagoenez, pertsona bakarra Grigor da, eta erlea ez da agertzen. Interakzio soziala da gai nagusia, jolasa, min ematea eta jasotzea, zigorra, eta halako kontuez. Irakurleari esperientzia bitalak bere haragitan sentitzeko aukera ematen dio, eraginkorki, literaturaren bidez.



### 'Hemen'. 59. zenbakia

**Argitaldaria:** Frontera.  
**Zuzendaria:** Joxemari Arzalluz.

**N**ora doa gizakia?». Galdera horri erantzuten saiatu dira *Hemen* erlijio gogoetarako aldizkariaren azkeneko zenbakian. Ohiko sailak, eta Mertxe Renobales, Ander Matheu eta Leire Moreno-Cugnon, Diego Bermejo eta Felix M. Gofiren artikulua bildu dituzte.

# Grigorren bilduma



## Imanol Mercero

**L**agun, hementxe duzu eskura «ezinbesteko irakurketa» deitzen diren obra horietako bat.

Argitalpen berria da, baina ez sorkuntza berria, eta, ziurrerenera, ezagutuko zenituen Grigorren abenturak, baina, agian, ahaztutakoa daukazu, –nik bezala– eta memoria freskatuko dizut.

Grigorren abenturak banaka kaleratu ziren duela bi hamarkada, bakoitza bere tituluarekin, obra buruaskiak balira bezala, baina Kalamatxin saileko azpisail bat osatuaz *Grigor eta erlean ipuinak* zeritzona: *Egunez parke batean* (1993), *Gauetz zoo batean* (1994), *Denboraldi bat ospitalean* (1995), *Oporraldi bat baserrian* (1996), *Maisu berria* (2000).

Orain, lehenengo lau ipuinak batean argitaratu dituzte (*Maisu berria* zergatik ez?), edizio zuzenduan eta ilustratzaile desberdin baten ekarpenekin. Testuan egindako aldaketek ez dute mamia eraldatzen, baina garai bateko eta oraingo testuak erkatzen



### Grigor eta erlea

**Idazlea:** Juan Kruz Igerabide.  
**Ilustratzailea:** Concetta Probanza.  
**Argitaletxea:** Alberdania

badira, berrikusia izan dela oharatzen gara. Orrialdez orrialde topatzen dira hitz aldatuak, esaldi berridatziak, baita hiketatik zuketarako erregistro aldaketak ere. Funtsean, gizartean bizi izan ditugun aldaketek bultzatutako estetika kontuak dira –hala ulertzen ditut pasarte batzuen gordintasun maila apaltzeko saiakerak–, baina baita gure uskarak bizi duen eboluzioarekin zerikusia duten kontuak ere, nik uste.

Lau ipuin buru-aske direla aipatu dut, eta orain gaineratuko dut mami, pisu eta are tonu oso desberdineko lanak direla.

Lehen abenturan (*Egunez parke batean*), sei urteko Grigor xalo bat aurkezten zaigu, errealtatearen eta fantasiaren arteko bereizketa egiten ez duena, eta erle baten lagun min egiten dena. Irakurlea ere halakoxea eskatzen du, fantasia erabatekoan murgiltzeko arazorik ez duena, une batzuetan zapaburuek edota txantxorriak helduekin ere hizketan aritzen baitira, Grigorren irudimena izan zitekeena gaindituta. Osagai gutxienez konbinazioan fantasiarako bidaia literario bikaina eraikitzen da, nire ustez. Bigarren abentura (*Gauetz*

*zoo batean*), istripu baten ondorioz eldarnio-amets mundu batean dagoen Grigor batekin topo egiten dugu. Zoo batean kokatuta dagoenez, pertsona bakarra Grigor da, eta erlea ez da agertzen. Interakzio soziala da gai nagusia, jolasa, min ematea eta jasotzea, zigorra, eta halako kontuez. Irakurleari esperientzia bitalak bere haragitan sentitzeko aukera ematen dio, eraginkorki, literaturaren bidez.

Hirugarren abentura (*Denboraldi bat ospitalean*) trantsizioko pasarte bat izango litzateke nobela batean txertatuta balego: adiskidetasun berri baten ermetzea erakusten digu, abentura xume batzuekin jantzita, baina ez du aurreko biek erakusten duten indarra irakurlearen barrenak asintzeko.

Laugarrena (*Oporraldi bat baserrian*), are xumeagoa da, beste adiskide berri bat dakarrena taldera, baina ekarpen gutxiok anekdotez eramana, abenturaren epilogo bat bezala.

Esan gabe doa ofizio handiko piezak direla lau ipuinak eta, beraz, bikaintasun testuinguru batean ulertu behar direla hausnarketa hauek guztiak.